

MAILOPE TXIKI: Eskulana **ERREPORTAJEA:** Bertsolari Txapelketa **HAIZEAK ERAMANA:** Aurkene Goldarazena **BATZARRE:** Anaitasunako ekitaldia **ERREPORTAJETXOA:** Gaztetxoan abesbatza

Ikusi
hemen
Mailope



issuu.com/mailopealdizkaria



Oilo artean...

Joana Ziganda (Oskotz)
Bertso berriak
Mailoperi jarriak




Mikel Lasartek oilo sail bat jarri du Etxarrin era ekologikoan hazi eta arrautzak bezeroei zuzenean saltzeko. Urtebete baino ez darama eta dagoeneko bezero talde polita lortu du.


Eskulana



Askotan erakutsi diguzue eskulanekin abilak zaretela. Horregatik haize-errotatxo bat egitea proposatzen dizuegu. Lehenik margotu ezazue eta ondoren pausoak jarraituz haize-errotatxo egitea lortuko duzue. Etxeko leihoan jarri eta haizearekin mugitzea lortzen baduzue erronka gainditua.



Moztu laukia eta
hasi eskulanarekin



04> Iritzia

08> Luze: Koldo Nuñez Betelu

09> Zabal: Iñigo Ulazia



10 > Bertsolari Txapelketa

Joan den martxoaren 28an Elizondon jokatu zen Nafarroako Bertso-lari Txapelketako finala. Tartean izan ziren Oskar Estanga eta Julio Soto. Txapelketa posible egiteko, ordea, lan asko egiten duen jendea dago atzetik.



16 > Azpirozko erlezainak

Juan Joxe Lasarte eta Joxe Miguel Etxetxikia azpiroztarrekin izan gara. Eztia egiten abilak dira biak eta ederki azaldu digute jarraitu beharreko prozesua. Leku aproposena ez den arren, propietate asko dituen eztia ateratzen omen da.

20> Kuxkuxean: Apirileko zorion agurrak

22> Erreportajetxoak: Gaztetxoan abesbatza

24> Kultura: Gaintzako Inauteriak



25 > Korrika kronika

Joan den martxoaren 21ean pasa zen Korrika Larraundik. Madotzera goizeko 3:30ak pasa iritsi zen eta Lekunberritik barna Uitzitik Leitzaldera joan zen. Txikienek ere euskararen alde korrika egiteko aukera izan zuten Ibarberri eta Araxes eskoletan antolatutako Korrika txikian.

27> 20 urte bidean: Kornietako Parke Eolikoa

28> Ekinaren ekinez: Mikel Lasarte

30> Haizeak eramana: Aurkene Goldarazena

Mailope doan banatzen da honako herrietan:

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitz eta Uztegi.

Argitaratzen du: Mailope Kultur Elkarteak.

L.G.: NA 719/93

Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esaneren erantzukizunik.

issuu.com/mailopealdizkaria

ERREDAKZIOA: Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Ainhoa Iriarte, Itziar Luri, Arantxa Mikeo, Nerea Urbizu eta Andoni Tolosa.

ARGAZKIAK: Labrit, J.A. Garaikoetxea, Ricardo Bosch, Mariano Zubiria, Nerea Urbizu, Joana Ziganda, Natalia Azkona, Ainhoa Iriarte, Aralar Musika Eskola, Nafarroako Bertsozale Elkarteak, Cederna, Igor Otermin, Aurkene Goldarazena eta Izaro Arroki.

PUBLIZITATEA: Labrit Multimedia - 948 210 103
mailope@labrit.net.

MAKETAZIOA: Araitz Amatria.

TIRADA: 1.600 ale.



Eusko Jaurlaritzak, eskualdeko Udak, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Bizi Larraun! Larraun bizi!

Larraundarrak gara,
hau da gure bizitokia, hemen sortuak izan ala ez,
17 herritako auzokideekin
osatutako taldeko kideak

Gure bailarari une hauetan argazki bat aterako bagenio,
argi-ilunak ikusiko genituzke:
populazioa zahartzen ari da,
gazteek aukera gutxi
izan dute beren herrian gelditzeko,
Larraungo herrien arteko harremanak
eta dinamikak urritu egin dira...

Baina, era berean, izaera berri bat ere hartzen ari da Larraun:
badira haurrak, badira gazteak,
bada bertan jaioetako jendea, badira kanpotik etorri direnak,
bada gauzak egiteko gogoia eta bizinahia!

Eta horri heldu nahi diogu!
Azken urteetako bilakaerak kezkatu egiten gaitu,
baina bizinahiaren
eta gauzak egiteko gogoaren
indarra sumatzen dugu gure barnean,
eta XXII. mendeko Larraun
marrazten, osatzen, irudikatzen, eraikitzen...
hasi nahi dugu.

Bideari ekitea omen da
norabait iristeko modu bakarra,
eta guk ekin diogu.
Baina ez dugu bakarrik joan nahi, ezin dugu,
bidelagunak nahi eta behar ditugu,
guztientzat baitago lekua
etorkizunerako ibilaldi honetan.

Larraun Bizi azken hilabete hauetan bultzatzen hasi garen eki-
mena da. Lerro hauetatik gonbidatu nahi zaitugu datorren apiri-
laren 24an egingo den aurkezpen ekitaldira.

Larraun Bizi - Bizi Larraun

Eguneko Zentroa: 100.000 € baino gehiago zalantzan Lekunberriko eta Larraungo Udalen artean

2009. urtean, sinatutako zuten Larraun eta Lekunberriko uda-
lek hainbat zerbitzu kudeatzeko hitzarmena (Eguneko Zentroa,
kiroldegia...).

Hitzarmena sinatu zenean, Eguneko Zentroko eraikina buka-
tzeko zegoen oraindik eta bi udalek ontzat ematen zituzten sa-
rreara eta gastuen aurreikuspenak. Eta behin obra bukatzean,
proiektuaren kontuak berrikusi eta eguneratu egingo zituztela
adostu zen. 2014. urte hasieran, Eguneko Zentroko proiektuaren
inguruko gastuen azterketa egitea eskatu genuen udalbatza-
rrean ezker abertzaleko zinegotziok, 2. solairuko pisuak buka-
tuak zeudelako eta proiektua bera bukatua zegoelako.

Udal bati dagokio bere inbertsioak kontrolatzea, baina gure
proposamena ez zen aurrera atera: Larraungo Elkarteak eta La-
rraun Bai taldeak, nonbait, ez zuten beharrik ikusten, proiektua
bukatu zelarik, kontuak zertan gelditu ziren aztertzeke.

Horren ordez, informazio eskaera egitea onartu zen Lekunbe-
rriko Udalarari. Informazioa eskatu eta urtebete joan zen deus ere
egin gabe. Informazioak hilabeteak zeramatzan udalean, baina
inork inolako aurrerapausorik egiten ez zuela ikusita, Larraungo
ezker abertzaleko zinegotziok ekin genion informazioa aztertze-
ari, eta ondorio hauxe atera dugu azterketa egin ondoren: gure
kalkuluen arabera, Lekunberriko Udalak 100000 € baino gehiago
itzuli beharko litzekiote Larraungo Udalarari.

Otsailean berriz eskatu genuen kontuak eguneratzea, eta
proposamen bat bideratu genuen Larraungo Udalera; orain-
goan bai, oraingoan gure proposamena aho batez onartu zen.
Larraungo ezker abertzaleko zinegotziak espero dugu hurren-
go egunetan gaia argitzea; finean, 2 udalen arteko hitzarmena
betetzea nahi dugu, alde guztiek dagokien ardurara hartzea eta
kontu guztiak gardentasunez eramatea, Larraungo Udalaren eta
Larraungo herritarren interesak baitaude jokoan.

Larraungo Ezker Abertzaleko zinegotziak

Hostal
Betelu

<http://www.hostalbetelu.com>

Eguneko menua,
karta, plater
konbinatuak eta pizza
goxoak

Etorri eta
on egin!

Erreserbak:
948513026
676145637



BETELU
PNEUMATIKOAK

TAILER MUGIKORRA

NEUMATIKO ALDAKETA
ZULATZEEN KONPONKETA

Vicente Iriarte
T. 646 474 166

www.neumaticosbetelu.es



GARABI ZERBITZUA 24 ORDUZ
MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA
IBILGAILU BERRIAK ETA ERABILIAK SAIGAI

GRUAS Y TALLERES LARRAUN S.L.

Lekunberriko industriagunea,
21. nabea
31870 Lekunberri
Nafarroa

Mugikorra: 626 494 356
Telefonoa: 948 507 229
Faxa: 948 507 281
gtlarraun@gmail.com



Manoli Larrayozi azken agurra

Manoli, gure senide maitea mundu hontatik joan zara beste mundura

Jainkoak eraman zaitu bere ondora, ixil joan zara.

Zure familia benetakoa ta Aralar irratiko familia triste gelditu gara,

sumatuko dugu zure hutsunea, ez dugu gehiago entzungo zure ahots ederra,

izan zara emaztea, ama, amañi, laguna... ona.

Persona ikusgarria izan zara, guztioi zure bizian, eman diguzu alaitasuna,

Hamaika aldiz elkarrekin joan gara Lourdesko Amabirgina bisitatzerara.

Baina orain hartu duzu, bidai luzeagoa.

Ziur gaude zeruan Lourdesko Amabirginaren besoetan egongo zerala.

Begietatik malkoak itzuliz zure arimaren alde, zure Aralar Irratiko familia

goaz otoitz egitera, Agur Maria sortzez garbia.

Manoli gure lagun maitea, laster zure ondoan izanen gara, guri zeruan txoko bat gorde diezaguzu ta gure eskaera Jainkoari.

Zure alaba Manoli emaiozu betiko atsedena eta zoriona.

Zure laguna Manoli Olaetxea. Ta irrirtzi bat zuretzako...

Manoli Olaetxea



- 5 -

Errespetuz

Moderno eta aurreratu esaten dioten jendarte honetan makinek hartzen dute pertsonen lekua maiz. Gasolina botatzeko, makina; kobratzeko, makina; erosketak egiteko, ordenagailua; agiriak egiteko, Internet...

Adibide asko dira baina agirien honetan jarriko dut oraingoan arreta. Nekeza izan ohi da agiriak egiteko abentura, edozein dela ere alorra edo gaia. Makina batekin hizketan aritzea baino nahiago izan behar genuke aurrez aurreko arreta; horixe dio behintzat logikak. Zoritxarrez ez beti, ordea. Uste hori hankaz gora jarri berri didate orain dela gutxi Larraungo udaletxean.

Nire ustez, jende aurreko zerbitzua eskaintzen duten udal lanleek gutxienez errespetuz hartu behar dituzte herritarrek, edo-

zer dela ere behar dutena. Herritarrok ez dugu errurik udaletxeko giza baliabideak ez badira nahikoak, edo direnak ez badira ego-kienak, edo lanez gainezka badaude.

Inozo aurpegiarekin, funtzionarioaren modu txarrak eta hustualdia jasanda, eta nire agiriarekin itzuli nintzen bueltan etxera. Esan gabe doa agiri horri irtenbide bat ematea udal langilearen zereginen eta soldataren barnean sartzen dela, baina tira, hori beste kontu bat da. Errespetua, horixe nire eskaera xumea.

Tristea da aitortzea, baina makinek behintzat eskerrak ematen dituzte beti.

Agurtzane Altuna

GARAZ Zure behar eta ordubegira moldatuko gara

ETORRI ETA INFORMAZIOA ZAITEZKI!

Mate
erdi eta goi zikloetarako prestaketa

Fisika ^{inglesa}
lengua ^{kimika}

948 504 450
648253521

marrazketa teknikoak
euskerak ^{historia}
unibertsitate mailako ikasgaiak

ALBI Taberna-kafetegia

Eguneko menua, jai egunetako menua,
bokatak eta pintxoak

Herriko plaza, 948 604 554,
Lekunberri

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera

Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)

948 504 077 · 639 778 851 · aitziberalf@hotmail.com

Bertso berriak

Mailoperi jarriak

Joana Ziganda (Oskotz)



*Euskararen legea
aldatu digute,
normalizazio bide
izan beharko luke.
Nafar hizkuntza maite,
altxor ta bertute
iparretik hegora
bizi nahi genuke*

*Gure eskubideak
ahaztuta erabat,
orain dirudi hartu
dituztela aintzat.
Ipar eta hegoan
ametsak berdinak
Nafarroan bermatzea
euskal ikasketak*

Aitor Irastortzarentzako puntua eta oinak.

Puntua:

Hauteskunde garaia
Oso hurbil dugu.

Oinak:

antza, esperantza, zalantza, dantza



Doinua: Dama gazte xarmant bat

- 6 -



AURTEN PRAGARA

Martxoan zehar hamaika jardueratan parte hartu dute eskualdeko emakumeek. Pintxo dastaketa, hitzaldiak, antzerkia... Urtero atzerrira bidaia bat antolatzen dute, aurtan Pragara joan dira.



AHT NAFARROAN

Apirilaren 17an, ostirala, arratsaldeko 19:00etan Larraungo udaletxean, Nafarroan Abiadura Handiko Trenari buruzko hitzaldia izanen da Kalaxka taldearen eskutik.



AFARI BATEN BUELTAN BERTSOTAN

Joan den hilean bertso afaria izan zen Lekunberriko Kattagorri Elkartean. Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña aritu ziren eta giro ederra jarri zuten. Apirilaren 18an Julio Soto eta Sebastian Lizaso arituko dira Azkaraten egingo den bertso afarian.

Bizi edo hil!



Mikel Alvarez

Kaixo Aitor! Zer moduz gabiltza? Suposatzen dut betiko martxan jarraituko duzula, nik bezala. Hala ere, orain dela gutxi eguneroko monotonia hori apurtu zuen gertaera bat izan genuen unibertsitatean: herri-unibertsitatea sortu genuen, non ikasleek eta irakasleek beraien jakintza denon mesedetara jarri zuten, hezkuntza forma alternatibo bat garatu zuten. Bertan, hainbat hitzaldi egon ziren eta horietako batera joan ginen, jakin min handiz. “Paradoxa

“Eguneroko bizitza aurre-baieztapen sendoz eraikitzen dugu”

matematikoak” zuen izena eta imajinatuko duzunez, nik matematikaz dakidana hutsaren hurrengoa da. Hala ere, bertara joan ginen zertxobait ikastera eta guztiz harritu ninduten zalantzeekin atera nintzen hitzaldi hartatik. Matematikari hauek, formula matematikoen bidez, gure bizitza eta orokorrean, mundua, oinarri oso ezegonkor eta lausoz osatuta dagoela baieztatzen zuten. Hori azaltzeko adibide nahiko simple bat erabiliaz, ohiko egoeretan erabiltzen dugun begiradari buelta ematea lortu zuten: “Gezurak esaten jarraituko duzu” eta besteak erantzun “Ez”. Esaldi horrek bere horretan kontraesan bat dauka, izan ere, ez du ziurtasunez gauza bat ala bestea esaten, baizik eta biak adierazteko gaitasuna du. Nahiz eta lehen begirada batean tontakeria bat iruditu, esaldi hori gure bizitza errealerara ekartzen badugu, paradoxa infinituak sortzen zaizkigu edozein unetan. Azken finean, nahiz eta badakigun errealtateak gauza edo elementu sendo asko ez dituela, eguneroko bizitza aurre-baieztapen sendoz eraikitzen dugu, non kontraesanentzat ez den lekurik uzten. Noizbait pentsatu al duzu bizitzaren eta heriotzaren arteko aldean, edota minaren eta plazeraren arteko alde psikologikoan? Ez dakit ondo azaldu dudan Aitor, baina niretzat aurretik aipaturiko esaldi edo adibide horrek gauza guztiei buelta emateko gaitasuna du eta askotan ezkutuan geratzen diren elementuen gainean hausnartzeko baliagarri izan ahal zaigu.



Aitor Irastortza

lepa Mikel! Nahiz eta matematika zalea izan buruketa zaila iruditu zait oraingoa, ea eragiketek nora nararmaten. Ni egia esan, aspertuko ez nauen egonkortasun baten bila nabil azkenaldian, gehiegizko zalantza, ezjakintasun eta desorekek ez lidakete arnasten utziko eta. Sufrimenduak, plazerra gehiago baloratzen irakatsi dit eta bietako bakoitza neurtzea garrantzitsua da, zalantzak neurtzea garrantzitsua den moduan. Errealitatea, bizitza eta heriotzaren gaiekin, ez naiz erantzun sendoetara iritsi oraindik Mikel eta ez dakit inoiz iritsiko naizen. Horregatik heriotzarena hartuko dut gaiarekin segitzeko helduleku eta adibide gisa. Heriotzarekiko, itolarria sentitu izan dut askotan, baina gero eta beldur gutxiago diot. Lehen txar gisa ulertua, orain neutral gisa hartzen dut, izan ere, heriotzak egoeraren arabera ez al ditu gauza positibo mordo bat? Noizbait, hilezkorra naizela imajinatu izan dut, baina mugarik ez izate horrek



ziurrenik kezka gehiago sortuko lidake, noizbait hilko naizela jakiteak baino. Lehen ez nintzela eta etorkizunean ere ez naizela existituko bururatzeak, nire bizitza gezur hutsa eta irrealia izan litekeela pentsatzera narama. Baina bizitakoa erreala dela sinetsi eta denboraren nozioa galdu zgero, noizbait

gertatua beti hor egongo dela ulertzen dut. Bizitza bukatzeak, ez zait iruditzen dena ezabatzen duenik, ez baitut nire burua elementu isolatu baten gisa ulertzen, eta nahiz eta fisikoki ez egon, nolabait biziko naizela sentitzen dut. Agian sufrimenduak saihesteko nire buruari sinestazitako gezurrak dira gehienak, baina guztiaren oinarrian egonkorra den zerbait dagoela sinesteak lasaitu egiten nau, aurre-baieztapen batzuk lagungarri ditudala uste dudalarik. Agian nik ere bizitza gezur batean pasako dut, baina gauza bat behintzat nahiko argi dut: uneoro pasatzen zaiguna errepika ezina da. Honek hurrengo momentuez gehiago gozatzeko ilusioa pizten dit eta pasatako une ederrak bizitzeko zortea izateagatik, oso eskertua nago.



Koldo Nuñez-Betelu

LUZE

Nire bizitzan trabak daude

Ume nintzeneko argazki bati begira nago. Badakit nire argazkia dela baina ez naiz identifikatzen argazkian ateratzen denarekin. Benetan gelditzen baina luze begira, zerbait sentituko dut nire barruan baina beste norbaiti begira egotea balitz bezala senti naiteke. Etengabe ari gara aldatzen, etengabe. Egun batetik hurrengora, poliki-poliki, aldatzen gara, bai gorputza eta itxura aldetik, bai barrutik ere. Dena aurrera doanean ibai lasai baten antzera mugitzen gara gure bizitzetan. Horrela idazten zuen poetak “gure bizitzak itsasora iristen diren ibaiak dira eta iristea hiltzea da”. Baina ibai honen urak aurrera mugituko dira lasai oztopoak ez dauden bitartean, ura pilatu eta gelditzen ez den bitartean hemengo edo hango zoko batean, uretan zaborrak agertzen ez diren bitartean. Gauza asko izan daitezke gure bizitzan traba egin dezaketena aurrera egiteko. Jakina, lan egoera, familiaren gorabeherak, osasun arazoak, eta abar luze bat, ager daitezke oztopo bezala. Baina, badaude horren argi ikusten ez ditugunak, baina, aldi berean, oso garrantzitsuak direnak.

Gure bizitzetan zerbait bukatu gabe, itxi gabe, geratzen denean, traba bihurtzen da aurrera egiteko bizitzan. Zorren modukoak dira, hortaz, inoiz ordaindu beharrekoak. Horrela, ume-tatik hasi gaitezke horrelako zorrek pilatzen. Gurasoek egindako minak izaten dira aurrenekoak. Guraso perfekturik ez dago, asko saiatuta ere. Hortaz, gurasook beti eragiten dizkiegu zauriak gure seme-alabei. Gero eskolakoak, anai-arrabek sortutakoak, gainerako senideek, eta banan-banan bizitzaren egoera desberdinek sortzen dizkigutenak. Hauetako batzuk, ez dira zauri handiak eta denborarekin berez sendatu edo, beste modu batera esanda, barkatu egiten dira. Baina sendatu gabe geratzen direnak, bizitza osoan eramaten dira ez bada erremediorik jartzen. Eta erremedio bat, inguru terapeutiko

“Sendatu gabeko minak, bizitza osoan eramaten dira erremediorik ez bada jartzen”



batean lantzea izango litzateke.

Zor edo itxi gabeko hauen artean, gordetako emozioak daude. Txikitatik ikasten dugu emozio batzuk gordetzen eta bideratu gabe uzten. Baina emozio bat, behin abiatuta ez da, besterik gabe, lurruntzen, gorputzean geratzen da trabatuta eta traba egiten digu bizitzan aurrera egiten. Maiz, itxi gabe geratzen diren emozioak doluarenak izaten dira. Norbait hiltzen denean, heriotza oso gogorra suertatzen denean hildakoa gaztea zelako edo oso lotura handia sentitzen genuelako pertsona horrekin, ez dugu guztiz onartzen bere heriotza,

dolua erdizka edo egin gabe geratzen da. Eta egin gabe dauzkagunean doluak, gu geu ere heriotzari begira jartzen gara, ez bizitzari begira. Hortik aurrera, gure bizitzak indarra galduko du, moteldu egingo da.

Baina zorrek geratzen direnean norbaiten bizitzan, zor horiek hurrengoei ere pasatzen zaizkie. Horrela, gure bizitzan izaten dute maiz eragina, gure aurrekoei gertatutakoak. Nigana hasi zen etortzen ama gazte bat, urteak zeramatzalako depresioan. Izan ere, 21 urte zituela, egun batean hasi zen triste jartzen eta ohean pasa behar izan zituen depresioak jota bederatzi hilabete. Hura pasatu bazen ere, handik aurrera ez zuen burua altxatzen. Ume bat izan zuen eta bere egoera berriz okertu egin zen. Umea kenduko ote zioten ikarra sentitzen zuen, horretarako inolako arrazoirik ez bazegoen ere. Konstelatu genuen bere egoera eta ikusi genuen amonak ospitalean izandako umeen artean, bi hilda jaio zirela baina ez zizkieten erakutsi. Neska hasi zen gaiak aztertzen eta aurkitu zuen umeak lapurtuak izan zirela. Ahaztuta zeuden familia horretan, lapurtutako umeak. Ahaztuta baina gaia irekita zegoen, horregatik horren eragin gaiztoa zuen nigana etorritako neskaren gainean. Beste batzuetan, ez da behar beste sentitu norbaiten heriotza. Edo norbaiti lapurtu diote dirua, herentzia edo jabetzak. Hauek eta beste asko, ez badira behar bezala itxi, familiaren inkontzientean geratzen dira zor modura eta familiako batek edo gehiagok sufrutuko dituzte, haien bizitzaren ibaian oztopoak baino ez dira izango. Hortxe ere, bizitza batzuk gogorak, tristeak, latak izatearen oinarria. Konponbidea, dauden zorrek, belaunaldi batzuk pasatu badira ere, lantzea eta garbitzea. Zorrek belaunaldi batetik bestera pasatzen dira, gutxienez hiru belaunalditan eta aitona egindakoa guk zuzendu edo, bestela ere, ordaindu egin beharko dugu.



Iparaldeko historiaz...

Bernard Goienetxe, zuberotar apaiza zen. 1661ean Luis XIII.aren eta nobleziaren aurka altxatu zuen Zuberoa. Errege frantziarrak Zuberoako foruak, Xiberoko Usantxa, murriztu nahi zituen nobleziaren alde, sistema feudala eta zentralismoa ezarriz. Mitikileko errotaren inguruan, bera hango semea baitzen, herria bildu zuen eta matxinadara eraman zuen, 1661eko ekainean. Urriaren 12an, Calvo izeneko mertzenari buru zelarrik, Zuberoako nobleak lagunduta menderatu zuten herri errebolta. Matalazek alde egitea lortu zuen, baina handik gutxira atxilotu zuten eta Mauleko gaztelura eraman zuten. Epaitu ondoren ekainaren 8an hil zuten lepoa moztuz Lextarreko plazan eta haren burua Mauleko sarreran jarri zuten jende guztiari erakusgai izan zedin. Ihes egin zuten 8 lagunei heriotza zigorra ezarri zitzaie eta beste hiruei biziarteko galeretara kondenatu zituzten, hauetako bat Matalazen biloba zen.

Bernard Goienetxek gidaturiko matxinadaren ondoren, nobleen agintea areagotu zen Zuberoan eta asko ahuldu ziren Zuberoako antzinako herri-eskubideak.

Nire ustez, Matalaz errebolturen oroimena, euskal memoria historikoan, jaso da, alde batetik, ahoz ahoko tra-

“Matalazen irudiak bizirik iraun du Etxahun-Iruri idazleari esker neurri batean”



dizioren esker eta bestetik, honen isla den kanten eskutik. Matalazen irudiak bizirik iraun du gaur egun arte Pierre Bordazarre, Etxahun-Iruri ezizenez eza gutzen den idazlea eta pastorgilearen esker neurri handi batean. Berak idatzi baitzuen “Matalaz” pastorala. 1955ean

Eskiulan, Bearnoko udalerrri euskaldunean, antzestu zen lehendabiziko aldiz. Ez dugu ahaztu behar, Benito Lertxundiren abesti hunkigarria ere, euskal herri osoan Matalazen historia ezaguna egin zuena:

*Dolü gabe, dolü gabe,
hiltzen niz,
bizia Xiberuarendako
emaiten baitüt.*

*Agian, agian,
egün batez
jeikiko dira
egiazko xiberutarrak
egiazko eskualdünak
tirano arrotzen hiltzeko,
egiazko eskualdünak
tirano arrotzen hiltzeko.*

Agian, agian...

Gaur egungo iruditerian, Zuberoako eta Euskal Herriko izatearen eta herriaren interesen alde egin zuen heroi handi gisa ageri da Matalaz.

Lagundu Mailope!

Mailopeko bazkidea izan nahi duzu?

mailope@labrit.net

**AURRERA
TABERNA
ARALAR, 15
948 60 47 24**

**TAXI
SOROA
609 168 217
Bederatzi plaza**

SK
SUAKONTROL
LEKUNBERRI
Suaren kontrako plakak

Oztegin kalea 25,
Lekunberri
948 60 48 96 (Tel.)
948 60 45 16 (Faxa)
suakontrol@grena.es
www.grena.es

CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxa: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

OGI-BERRI ALTZA
Aralar kalea, 41
Lekunberri
OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884

Txapelket



Julio Soto 2015eko Nafarroako txapeldun

Xabier Terrerosekin aritu zen buruz burukoan, eta azkenean, 797,5 punturekin, txapela Gorritira. Oskar Estangak ere lan ona egin zuen eta laugarren postua beretzat izan zen.

Martxoaren 29an, Elizondoko pilotalekuan izan zen aurtengo Nafarroako Bertsolari Txapelketako finala. Bertan zortzi bertsolari aritu ziren. Horra hor sailkapena: Julio Soto txapeldun 797,5 punturekin, atzetik Xabier Terreros (759 puntu), Eneko Lazkoz (446,5 puntu), Oskar Estanga (430,5 puntu), Eneko Fernandez (420,5 puntu), Ander Fuentes Iturri (412,5 puntu), Julen Zelaieta (411 puntu) eta Aimar Karrika (405 puntu).

Zazpigarren finala zuen Juliok eta honekin hirugarren txapela du Nafarroako Bertsolari Txapelketan. Aurtengoa ordea, ez da erraza izan gorritiarentzat, Alberto anaia urtarrilean hil baitzen auto istripu batean. Berarentzat eta etxekoentzat izan ziren bai agurra eta baita amaierako bertso hau ere:

Julio Sotoren AGURRA:

Aitak zuri hitz egiten pasatzen ditu egunak; egunero pizten dizu kandela ama kuttunak; Itsaso zurekin dago dauden bezela lagunak Idurre eta Gorriti eta oilagorren lumak. Guztiok elkartzen gaitu zuganako maitasunak. Alberto, hartu itzazu besarkada bihozduak gutxi barru aurrez aurre emango dizkizugunak.

Julio hunkiturik abestu zuen azken agurra, anaia Albertori eskainia.

Beraz, dagoeneko badugu txapeldun berria, 2013tik Xabier Silveirak baitzuen txapela. Ariketei dagokienez antolatzaileek zenbait aldaketa egin dituzte aurten. Bertsolariek guztira bederatzi ariketa egin behar izan zituzten.

Binaka gaia emanda, hiruna bertso zortziko handian.

Binaka gaia emanda, hiruna bertso zortziko txikian.

Banaka lehen puntua emanda, hiru bertso zortziko txikian.

Binaka gaia emanda, hiruna bertso hamarreko txikian.

Banaka gaia emanda, bi bertso nahi den doinu eta neurrian.

Ondoren, puntuaziorik altuena duten bi bertsolarien artean buruz-burukoa jokatu zen:

Binaka gaia emanda, zortziko txikian puntutan, zortzi bertso osatu arte.

Binaka gaia emanda, hiruna bertso sei puntuko motzean.

Kartzelako lana: Banaka gaia emanda, hiru bertso nahi den doinu eta neurrian

Finalaren lekua bera ere berria izan da, aurreko bi finalak Iruñean jokatu baitziren, baina aurten egoera ekonomikoak bultzatuta batez ere, Elizondon egitea erabaki zuten. Hain zuzen ere elizondorrra dugu Nafarroako Bertsozale Elkarteko egungo eragilea, Lorea Arburua. 2008ko abendutik bera arduratzen da proiektuak dinamizatzeaz; lan-taldeak koordinatu (irakasle taldeak zein boluntario taldeak), ekimenen prestaketak aurrera eramanez (Txapelketa, sariketak, zikloak...), diru-laguntzak kudeatu, administrazio eta komunikazio lanak egin... Txapelketa bera prestatzea ez da lan xamurra eta berarekin izan gara txapelketaren antolatetari buruz hitz egiteko.

Loreak azaldu digunaren arabera, lehenik eta behin talde antolatzaileak eratzen dute profil desberdineko jendearekin (gai-jartzaileak, bertsolariak, epaileak, bertso-eskolako kideak...). 5-6 kidez osatutako taldea izan ohi da. Udako oporren aurretik lehen bilera egiten dute Txapelketaren ezaugarri nagusiak zehazteko (izen-ematea, egitura, lanak, toki posibleak, datak...). Irailetik aurrera berriz, taldea maiztasun handiagoarekin biltzen hasten da, abenduaren erdi-bukaerarako txapelketa bideratuta uzteko. Lorea: "Elkarteko eragileok, taldeak adostutako ildoan gainean lan egiten dugu eta urtarrilean bete-betean murgiltzen gara prestaketa lanetan. Horrelako txapelketa bat prestatzeko aurre lan handia egin behar da: helburuak



Lorea Arburua da egungo Nafarroako Bertsolari Elkarteko eragilea.

“Bertsolari, gai-jartzaile zein epailek oso hurbilekotzat gaituztela iruditzen zait”

finkatu, bertsolariak, gai-jartzaileak eta epaileak koordinatu, izen-ematea zabaldu, datak zehaztu, Udalekin harremanak abiarazi tokiak lotzeko, aretoak bisitatu, komunikabideekin elkarlana bideratu, txapelketako irudia eta euskarriak prestatu (eskuorriak, kartelak, sarrerak...), kontratazioak egin, babesleak bilatu, komunikazioa landu...” Behin Txapelketa hasita, saioen prestaketa lanak eta hedapena dira lan nagusiak. Bukatutakoan berriz, balorazio bilerak, txostenak eta fakturazioa.

Beraz, gauza guztiekin gertatzen den moduan, batzuek txapelketaz gozatzeko aukera izan dezagun beste batzuek lan nekeza egin behar izaten dute. Epaimahai eta gai-jartzaile taldeak osatzeko, aurreko edizioetan lan horietan aritu den jendearengana jotzen dute lehenik, baina Elkartearen bueltan dagoen jendeari

(bertso-eskolako kideei...) lan-talde horietan parte-hartzeko aukera ere zabalitzen zaie. Zenbait kasutan, proposamen zuzenak ere egiten dira.

Loreak oso giro hurbila sumatzen du Nafarroako Bertsolari Txapelketako saioetan, bai bertsozaleen aldetik eta baita bertsolarien partetik ere. Gainera, bertsozaleak nafarrak izan ohi dira, normalean saioa egiten den eremukoak eta bertsolarien hurbilekoak. Beraz, bertsozaleen berotasuna eta laguntasuna agerikoa izaten da. “Bertsolariak ere lagunak dira haien artean, aunitzen kasuan gainera bertso-eskolako kideak dira eta elkar ezagutza hori gero oholtzan nabaritu eta estimatzen da”. Saio bakoitzak ordea, bere berezitasunak ditu; herria dela, bertsozaleak direla, bertsolarien perfila dela, bertsoaldien gorabeherak, gaiak... Faktore horiek egiten dute berezi saio bakoitza.

Antolatzaileek bertsolariekin harreman ona dutela dio Loreak: “Nik errango nuke arras harreman ona dugula eta konfiantzazkoa. Momentu batzuetan ikuspuntu desberdinak sortu badaitezke ere, orain arte behintzat ongi bideratzen jakin dugula uste dut eta egon daitezkeen gomendioak zein proposa-

“Bertsolariak lagunak ere badira euren artean eta oholtzan hori nabaritu egiten da”

menak kontuan hartzen saiatzen gara. Bertsolari, gai-jartzaile zein epaileek oso hurbilekotzat gaituztela iruditzen zait”.

Dena ordea, ez da horren polita, txapelketak badu atzean bideragarria izateko ezinbesteko laguntza ekonomikoaren beharra eta euren eguneroko borroka da hori. “Saioak jasotzen dituzten Udalek lagundu ohi dute txapelketa eta alde horretatik oso kontent gaude. Honekin batera, hainbat diru-laguntza publikotara jotzen dugu baina partida hauek ez dira sekula ziurrak izaten”. Horregatik, babesle pribatuak bilatzen dituzte, zenbait edizio babesle pribatu bakarrekin egin zituzten, orain berriz babesle pribatu ertain-txikiak ditu txapelketa.

Lan egiteak gehienetan bere saria izaten du eta kasu honetan poztekoa da azken urteetan txapelketan izan den parte-hartze gorakada, bertsolarien aldetik eta baita bertsozaleen aldetik ere. Bertsolariei dagokionez, Lorearen ustez baliteke bi urtetik behin antolatzen den taldekako txapelketak eragin izana. 2011ra bitarte, Nafarroako Bertsolari Txapelketa urtero antolatzen zen. Urte horretan ordea, bi urtez behingo maiztasuna ezartzea erabaki zuen Elkarrekin eta egiten ez zen urteetan (2012, 2014..) Bardoak-Taldekako Bertso Txapelketa antolatzea, indartzen ari ziren gaztehelduen bertso-eskolak aktibatu nahian. Lorea: “Ikasle askorentzat taldekako txapelketak publiko aurrean kantatzeko lehen pausoa ekarri du eta esperientzia horretatik abiatuta hainbatek aurten banakako txapelketan lehen aldiz izena eman dute. Oso datu pozgarriak dira baina oraindik ere lan handia dugu egiteko gazteen belaunaldiari dagokionez”.

Bertsozaleak ere oro har geroz eta gehiago dira, gazteak gainera. Txapelketako saioei begira nabarmentzekoa da final-laurdenetako fasean bildutako bertsozale kopurua, duela urte batzuekin konparazioan hazi egin dena.

“Ikusi da Nafarroako bertsolarien plazan gero eta bertsolari gehiagok dutela lekua”

Eskualdean badugu aurten-go Txapelketan epaile lane-tan ibilitakorik ere, Arkaitz Goikoetxeak aurten oltzatik beharrean oholtzara begira pasa du Txapelketa.

**Zein izaten da saio batean epamahaia-
ren lana?**

Epamahaia hainbat kidek osatzen dute, eta haien lana izaten da ariketaz ariketa bertsoak entzun eta Otik 10era puntuak ematea. Epaile izena erabiltzen den arren, nik azpimarratu nahi dut guk iritzi bat ematen dugula eta ez hainbeste epai bat. Epaile bakoitzak eman dituen puntuak batu egiten dituzte gero, eta sailkapen bat ateratzen da hortik, baina epaileen iritzia ez da bakarria izaten, bakoitzak izaten ditu bere ñabardurak, nahiz eta gero emaitza bakar gisa aurkeztu.

Nola puntuatzen da? Epaile bakoitzak bertsoaldi osoa, poto eta lorpen guztiekin? Edo lana banatu egiten du-zue?

Epaile guztiek bertso guztiak entzuten dituzte, eta puntuak ere bertsoz bertso ematen dituzte. Ez dugu lanik banatzen. Elkarrekin hitz egiten ditugu gauza batzuk saioan zehar, baina azkar eta azale-tik, bertso saioaren erritmoak ez baitu uzten gogoeta eta azterketa sakoneta-rako betarik. Guk ere bat-batean egiten dugu gure lana.

Zenbat epaile ibili zarete txapelketan?

Guztira bost epaile aritu gara, eta epaile izateko prest dagoen beste kide bat ere saio dezente jarraitu ditu gure ondoan. Final-laurdenetan hiru epaile aritu gara, finalerdietan lau eta finalean

bost. Talde murrizt samarra da, baina berritzeko ahaleginetan gabilta, eta hemendik bi urtera aurten halako bi izatea espero dut.

Zer da zailena saio bat baloratzeko orduan?

Norberak bere irizpideari eustea. Bakoitzak ditugu gure joerak, gure maniak eta gogotik saritzen ditugun gauzak. Epaile guztiek ez ditugu gauza berak baloratzen eta zigortzen. Malgutasun hori mesedegarria dela uste dut, baina malgutasun hori denekin berdin aplikatzea, horixe kostatzen da gehien, nik uste. Ez da erraza irizpide horietan egun batetik bestera berdin ibiltzea ere. Larunbateko saioan eta igandeko saioan nork bere koska leku berean jartzen asmatzea.

Anekdotarik?

Kantari ari diren bertsolari askorekin bertso eskolan aritu izan naiz eta aritzen naiz, eta bitxi samarra egiten zait horiei entzunez epaile lanak egitea.

Zer balorazio egiten duzu bukatu berri den Txapelketari buruz?

Aurtengoak itxaropenerako argazkia utzi duela esango nuke. Azken urteetan goian ibili diren askok goian jarraitzen dute, baina ez atzetik bultzaka ez dazozelako. Goiko horiek ere pauso bat aurrera egin dute, eta, bestalde, gazte belaunaldi bat erdigune samarrean agertu da aurtengo txapelketan, koska bat gora eginda horiek ere, eta goikoen tropelean sartu da: jarreraz, erritmoz eta edukiz heltzen ari direla ikusten da. Aurtengo finalean, adibidez, izen eta aurpegi berririk izan ez den arren, ikusi da Nafarroako bertsolarien plazan gero eta bertsolari gehiagok dutela lekua.

Gaia jarritz...



Gai-jartzaile taldean ere bi herritar ari dira parte hartzen, Kizkitza Mujika eta Ainhoa Iriarte. Aurten dute gai jartzen lehen aldia. Guztira hamahiru laguneko taldea osatzen dute saio guztietarako ariketa bakoitzerako gai aski prestatzeko. Astero biltzen dira gai-jartzaileak Iruñean, baina batzuei ezinezkoa ere egiten zaie bileretara joatea, Kizkitza eta Ainhoaren kasuan, euren proposamenak idazkariaren bitartez bidaltzen dizkiote taldeari. Kizkitza: "Inspirazioa etortzen zaigunean apuntatzen joaten gara eta gero gure artean lantzen ditugu. Gero

taldean esperientziadunak badirenez, guk bidalitako gaien artean aukeratzten duten edo ideia bera hartuta planteamendua aldatzen dute etab."

Hasieran oinarri batzuk eman zizkieten ariketa bakoitzerako gaiak nondik nora joan beharko luketen jakiteko, kontrajarritako iritziak izan behar duten edo irekiak izan behar duten biek iritzi berdina lantzeko, umore puntua behar duen edo ez... Kizkitza: "Txapelketa aurrera joan den heinean ere, idazkariak ariketa baterako edo besterako gaiak falta zirela abisatzen zigun".

Txapelketako saio gehientsuenetan egon dira eta gai jartzen hasiberriak izan arren, dagoeneko euren zenbait gaiei abestu diete bertsolariek. Ainhoa: "Egia esan espero ez duzun gauza bat da eta ilusioa egiten dizu eta gero azterketa egiten duzu, ze ongi aritu den edo hau beste modu batean jarri izan banu...".

Txapelketan parte hartzeko eta laguntzeko beste modu bat da eta pozik eta gustora daude esperientzia berri honekin. Ainhoa: "Niretzat aurtengo bizipenak oso positiboak izan dira, beste modu batean bizi izan dut txapelketa aurten, orain beste gauza batzuk hartzen ditut kontuan saio bat ikustera joaten naizenean".



Lehenengoz Nafarroako Bertsolari Txapelketan gai-jartzaile lanak egiten dabilta Ainhoa eta Kizkitza.

Establezimenduen kalitatea zainduz

Nafarroako 70 establezimenduk kalitatearen aipamena jaso zuten joan den martxoaren 10ean. Tartean, eskualdeko zenbaitek, Beteluko ostatuak eta tabernak, Gaintzako Kaardel landetxeak, Astizko aterpeak eta Astizko Leizeak, Oderizko Etxatoa landetxeak, Arruizko Juansarenea I eta II landetxeak eta Gorritiko Pagozelai jatetxeak. Jarduera Onen Eskuliburuak saria jaso zuten Oibarko Casa Zabaleta Erretegian egin zen ekitaldian. Establezimendu horiek guztiek 2014an kalitatea kudeatzeko "JOE" sistemaren alde egin zuten. Cederna Garalurrek bultzatzen duen Jarduera Onen Eskuliburuak izeneko markak turismo-kalitaterako erreferente izan nahi du.



- 14 -

Euskara ikur hartuta

Kontseiluak apirilaren 25ean Iruñeko Anaitasuna goraino bete nahi du Nafarroan aldaketa euskaratik egin behar dela aldarrikatzeko. Ekitaldia arratsaldeko 18:30ean izanen da. Horrekin lotuta, martxoaren 25ean, hau da hilabete lehenago etxeko balkoietan "Euskaraz bizi nahi dut" ikurrak balkoietan jartzeko deialdia egin zuten. Ikur hori ez baduzu, Larraungo AEK euskaltegian eskura dezakezu 3 euroren truke. Gainera zure balkoiari argazkia ateraz gero nafarroakoeuskalgintza@gmail.com e-postara bidaltzera ere animatu dituzte herritarrak.

Musikari Txikiak tailerra antolatu du Aralar Musika Eskolak

2012ko maiatzetik 2014ko abenduaren 31 arte jaiotako haur eta euren gurasoei zuzendutako tailerra izango. Musika haurren garapenean oso lagungarria izan daiteke, orekaren garapenerako mesedegarria da, mugimendu eta hizkuntzaren garapenerako lagungarri eta guraso eta seme-alaben arteko komunikazioa hobetzeko aukera sortzen ditu.



Tailerra euskaraz izango da eta Unai Artola irakasleak eskainiko du apirilaren erdialdetik maiatzaren erdialdearte. Lau saio izango dira guztira, arratsalde. Gehienez ere 12 hurrek parte hartu ahalgo dute. Besteak beste, hurrengo alderdi hauek landuko dituzte: musikaren, jokoaren eta esperimentazioaren bidez gorputza eta ahotsaren jabetza, gurasoen eta seme-alaben arteko komunikazio afektiboa, gaitasun espresiboak, musikalak, intelektualak eta motrizak ere garatuko dira. Informa zaitetz eta eman izena lehenbailen, info@alarar.org helbide elektronikora idatzita edo goizetan 948504489 / 672122472 telefono zenbakian.

Angel Urrutia Poesia Lehiaketan parte hartzeko epea zabalik

Martxan da Angel Urrutia Poesia Lehiaketa. Lanak maiatzaren 30a baino lehen Mitxausean aurkeztu beharko dira. 18. edizioa izango da aurtengoa eta urtero bezala sari ematea Ayestaran hotelean egingo da eta saridunak bere lanaren 150 argitalpen jasoko ditu. Parte hartzeko ezinbestekoa da 18 urte baino gehiago izatea, lanak erdaraz behar dute izan, 300-600 bertso. Irabazlearen izena urrian ezagutuko dugu. Informazio gehiago: www.lekunberri.net webgunean.

urrutia
enea
etxeko hestekiak
LEKUNBERRI

OTXOTORENA
okindegia
ARRIBE
ADIII! TLF BERRIA:
948 51 30 32

GALBURU
okindegia
RIOJA
Tel: 948 50 40 42 - 609 720 313
Alde Zaharra, 50 - 31570 LEKUNBERRI (Nafarroa)

IORTIA
Juanjo Gaité García
Odontologoa Kol. Zbkia. 317
Tel. 948 467 603
Altsasu
Tel. 948 604 804
Lekunberri
HORTZ KLINIKA
www.clinicaiortia.net
ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA

Eta zuk oraindik ez duzu zure oihal zatia josi?

Aurtengo Gure Esku Dago ekitaldian, probintzia bakoitzeko hiriburuetan, oihal zatiak josiz hautestontzi erraldoi bat egi-tea da helburua. Larraunen apirilaren 26an izanen da Ehuntze Eguna. Egun horretan bailarako herritarrek euren oihal zatia apaindu eta josiko dute. Ekainaren 21ean, Iruñean osatuko den hautestontzia osatzeko erabiliko da. Hala ere, dagoeneko antolatzaileak hasiak dira oihal metroak saltzen. Joan den hilaren 15ean Lekunberriko plazan jarri zuten postutxo.

Bestalde, Jostunak dokumentalaren proiektioekin jarraituz, martxoan Aldatzen eta Baraibarren izan zen dokumentala eta apirilaren 17an, arratsaldeko 19:00etan Gorritiko herriko etxean eskainiko dute.

Araitzen, martxoaren 29an erabakitze eskubidearen aldeko festa sinboliko bat ospatu zuten. Pilota Eskolako pilotarien partiduak izan ziren, jan edana nahikoa eta trikitixa eta pandero doinuen artean antolatzaileek lehenengo oihal metroak saldu eta informazioa eskaintzen ibili ziren. Herritarrek euren oihalak margotu zituzten etxeko txikiaren laguntzarekin eta mural bat ere osatu zuten.

Ekitaldi nagusian, Jon Zirizak, Nafarroako Gure Esku Dago ekimeneko ordezkariak, aurtengoren nondik norakoak azaldu zituen eta Oskar Estangaren bertsoekin eta txalapartarekin borobildu zuten ekitaldia. Amaieran atera zuten herri argazkira, eskualdeko zenbait kirolari eta udal ordezkari batu ziren. Gogoratu bestalde, apirilaren 11n, trikipoteoa izanen dela Atallutik Betelura eta apirilaren 26an, Ehuntze Eguna egingo dela. Beraz oraindik ez baduzu zure oihal metroa erosi, hurbildu eta izan zaitez zu ere jostun!



Antsonea
ARDI LATXAREN ESNE GORDINEZ
%100 EGINDAKO GAZTA ONDUA.^{100%}
TF: 948 51 34 68 antsoneagaztak@gmail.com Urtegi
gazta berria salgai!!

Atabal
okindegia
Era askotako
ogiak eta gozoak
Etxez etxe
banatuko dugu
Ogia enkargatzeko...
948513151

MAITE
harategia
Illustration of a person working in a field with a horse-drawn cart.

BERTAKO HARAGIA
Txistorra, txorizoa,
saltxitxak,
sukaldaturako platerak.
Etxera eramateko
zerbiltua ere eskeintzen
dizugu.
Antigua Kalea N°7
31890 BETELU
Telf: 948 51 30 88
maiteharategia@hotmail.com



“Leku aproposena ez den arren, ezti ona ateratzen da”

- 16 -



Juan Joxe Lasarte eta Joxe Miguel Etxetxikia azpiroztarrek dioten bezela, zenbat eta gehiago ikasi, gustukoagoa omen da erleen mundua. Erleen bizimodua taldean lana egitea da. Horren ere-du ezin hobea da erlearena: batak bestearen beharra du, eta erabaki guztiak langileak hartzen ditu, bestela, akabo komunitatea.

Juan Joxe Lasartek eta Joxe Miguel Etxetxikiak Azpirotzen bertan egiten dute ezti. Gipuzkoako Erlezainen Elkarteko kide da lehena eta Nafarroako Erlezainen Elkartekoa bestea.

“Egun epelak behar dituzte lanean ongi aritzeko, eguzkia”

Azpirotzen erlezainak. Nolatan hasi zineten honetan?

Juan Joxe: Duela 21 urte hasi nintzen. Nire aitona (amaren aitak) Errazkinen ere bazituen eta umetan ikusten nuen bertan. Ikusi eta gustatu. Horrela hasi nintzen. Momentu honetan 9 erle dauzkat. Ikastaro bat egin nuen gero eta Gipuzkoako erlezainen elkarteko kide naiz. Honen bitartez materiala lortzeko errazagoa da eta informazioa ere eskuratzen dugu.

Joxe Miguel: Ni Joxe Mari Aleman apezaren bitartez hasi nintzen. Laguntzen hasi nintzaion eta animatu egin ninduen. Birekin hasi nintzen eta joan zenean bere materiala eman zidan. Nik ere ikastaro bat egin nuen eta Nafarroako erlezainen elkartekoa naiz. Ez gara erleak ditugun bakarrik dena den, herri bakoitzean baten bat badago. Hala ere, lehenago gehiago zeuden. Aurten bi erle hil zaizkit neguan eta orain 10 erle ditut.

Ezer ez dakien batentzat, erlauntza nola dago antolatuta?

Joxe Miguel: Hiru erle mota daude erlauntza edo familia bakoitzean eta jaiotzetik bereizten dira beraien artean: langileek erabakitako erregin bat, zanganoak eta langileak. Erregina 16 egunekin jaiotzen da, eta arrautzak jartzeaz arduratzen da. Zanganoak 24 egunera jaiotzen dira eta erregina ernaltzeaz arduratzen dira. Langileak berriz, 21 egunera jaiotzen dira eta horien lana umeen zaintza da 21. egunera arte. Gero, lorez lore ibiliko dira nektarra biltzen. Hauek eztiz eta polenez elikatzen dira.

Kontaiguzue laburki bada ere, nola den erregina aukeratzearen edo sortzearen prozesua.

Joxe Miguel: Langileek 8-10 arrautza aukeratzen dituzte erregina izateko (berez erle langile bat da baina beste era batera elikatzen dute, erregina-jelea soilik emanaz) eta koadroaren leku desberdinetan jartzen dituzte. Jaiotzen den lehenak besteak akatuko ditu. 4. egunetik aurrera langileek



Erleak neguan kaxan geldirik egoten dira, erreginak ez du elikagairik eta ez ditu arrautzak jartzen.

erregina-jelearekin soilik elikatzen dute, hexagono formako zulo txoa itxi arte. 16 egunera jaioko da eta 5 egunen ondoren, zanganoek (8-10 erlek) ernaldutako erregina dute, bizitzan behin bakarrik. Eta ernalkuntza horrek bizitza osorako balioko dio erreginari. Pentsa, erregina 5-6 urtez bizi daiteke. Eguneko 2.000-3.000 arrautza jar ditzake, garai onean.

Kajoiatan erregina bat, eta bere familia zenbat erlez dago osatuta?

Juan Joxe: 20.000 erletik 80.000 erletara. Demagun 80.000 erleko kajoi dugula. Horretako proportzioak hauek dira: 200-2.000 zanganoak, eta beste guztiak langileak.

Erleak loretatik ekartzen duen guztia ez da ezti bihurtuko...

Juan Joxe: Ez, ahoan dakarrena langileen ahoz aho ibiliko da kajoiatan hezetasuna kendu arte, eta bukaerako hori, %30, ezti izango da.

Zuek biltzen duzuen ezti zerezkoa da?

Juan Joxe: Mila lorereana eta gaztain lorearena da. Barrutietako loreatik hartzen dute (hirusta, tximiloa, ainarra...). Erleak 5-6 kilometroko erradioan ibiltzen dira eta hori da inguruan daukaguna. Erleentzat ura egotea oso garrantzitsua da eta hemen hori badute. Egun epelak behar ditu lanean ongi aritzeko, eguzkia. Gure eskualdea ez da ezti egiteko leku aproposena baina ezti ona ateratzen da, mila lorerenak propietate asko dituela diote: landare askotan dabilta azken finean. Urtean behin

elkARRIZketa:

“Erleak hozka egingo dizu bere etxetik gertu, 10 metrora. Bestela ez”

jasotzen dugu eztia, urri inguruan.

Joxe Miguel: Gaztain lorea eta laharra ere asko, %80 horrekin egina da. Basoko ezta ere esan diezaiokegu hemengoari. Azken-azkenean huntzarekin ere egiten dute, udazkenean, negu aldean. Dena den, maiatza, ekaina eta uztaila dira hilabete garrantzitsuenak. Hauek onak baldin badatoz, ezti asko eta ona ziurtatuta.

Askok beldurra diegu erleei...

Juan Joxe: Erleak hozka egingo dizu bere etxetik gertu, 10 metrora. Bestela ez, deskuido beharko luke. Dena dela erleek ez dute hozka egiten, ez dauka mandibularik, eztena sartu egiten du, baina berez hozka ez. Eztenarekin batera tripak ateratzen zaizkio ziztada ematerakoan eta horregatik momentuan hil egiten da.

Joxe Miguel: Kanpoan lanean ari direnean ez dizute sekula aurre egingo. Ez bada sega-makina batekin zarata egiten ari zarela edo zuk eraso egin diozula. Liztorrak dira hozka eta zuloa egiten dutenak, erleak ez. Fruituak zulatuta daudela ikustean, liztorrak izan dira.

Nahiko erraz despistatzen omen dira.

Joxe Miguel: Kaxa metro bat mugitzen baduzu, erleak zalantzan bezela gelditzen dira. Ondoko kaxan sartuko dira eta janariarekin sartzen badira, onartuko dituzte, eta horrela ez bada, akatu. Bestela batetik bestera ez dira ibiltzen.

Juan Joxe: Familia bakoitzak bere usaina dauka, erreginak feromonak ematen dizkie, denak elkartzeko usain hori ematen die. Erle horiek beraien usaina duten horretara bueltatzen dira.

Erleek neguan zer egiten dute?

Joxe Miguel: Neguan kaxan geldirik egon. Erreginak ez ditu arrautzak jartzen ez baitu elikagairik. Orduko erleak 6 hilabetez bizi dira, bestela erleak bukatuko lirake bertan. Defentsa



“Eztia ateratzen denean beti beratxa da, eta denborarekin gogortu egiten da, hori naturala da”

bat da. Eta beharrezkoa badute, kaxaren goiko aldean 8-10 kilo ezti uzten zaizkie. Bizitzen jarraitzeko behar dutena da. Pentsu berezia ere badago beharko balukete emateko.

Juan Joxe: Hotz handia egiten badu denak elkarri pega-pega eginda jartzen dira, elkarri beroa emateko. Barruan daudenak bero egoten dira eta kanpokoak hotzak eta horregatik txandatu egiten dira, bueltan-bueltan. Erreserbak jaten dituzte, bertan duten ezta eta guk jartzen dieguna. Habiaren ondoan polena eta ezta jartzen dituzte, inguruan.

Zein dira erlearen etsairik handienak?

Joxe Miguel: Momentu honetan liztor asiarra. Hona iaz hasi ziren etortzen. Likido gozo bat jartzen dugu erlauntzaren inguruan, bertaratzeko eta erlauntzan ez sartzeko. Gozoa botila batean sartuta dago eta behin sartuta ezin dira atera, tranpa bat da azkenean. Beste etsaiak tratamendu eta herbizida kimikoak dira.

Juan Joxe: Liztor asiarrak erleak jaten ditu. Burua kendu eta gorputza jan, elikatze erabiltzen dituzte. Hiru al-

diz handiagoak dira, eta oso kolore biziak ditu. Begi gorriak eta gorputza horia eta beltza. Bakarren bat erlauntzan sartuz gero, erleek aurre egiten diote. Taldean hegala astinduz tenperatura igotzen dute eta liztorrak ez omen du tenperatura hori jasaten, azkenean ito arte.

Eztia askotan gogortu egiten zaigu: seinale ona da hori ezta?

Juan Joxe: Eztia ateratzen denean beti beratxa da, eta denborarekin gogortu egiten da, baina hori naturala da. Azpirozko ezta adibidez ez da gogortzen. Merkatuan dauden ezti asko ez gogortzeko pasteurizatu egiten dituzte.

Joxe Miguel: Baina eztiaren arabea gogortzen da: segun zein lorerekin egina dagoen. Kristalizatzearena azken finean purua den seinale.

Propoleoa ere egiten duzue? Zer da zehazki?

Joxe Miguel: Nik ezta eta propoleoa egiten ditut. Neronek propoleoa antibiotiko bezela erabiltzen dut. Gaixo nagoetan asko arintzen dit honek. Propoleoak arbolaren ernamuina eta pinuaren erretsina dauzka. Eztia ateratzera zoazenean horregatik rasketarekin joan beharra da, propoleoarekin itsatsita dagoelako dena eta indarra behar da askatzeko.

Juan Joxe: Propoleoa antibakterianoa da eta kaxa babesteko erabiltzen dute, baita soldeatzeko ere. Antibiotiko naturala da. Zuhaitzetan dagoen ernamuin hori txoriek eta animaliek ez jateko defentsa da eta hori aprobetxatzen dute erleek ere. Eztia lorearen nektarrarekin egiten da.

“Erle basati eta txikiagoa den horrek bere burua hobeto defenditzen omen du, indartsuagoa da”

Sumatu al duzue gure mundu ero honen eraginik erleengan?

Joxe Miguel: Bai. Pestizidak, kutsadura orokorra, antenak... ezin da frogatu baina horien eragina dagoela diote eta badago. Behin 8 erletik 4 galdu nituen, barrenean 10 kilo ezti izan eta erlerik batere. Eta erleak non dauden ez jakin. Planeta honetako aldaketen ondorioa.

Juan Joxe: Antenak txarrak direla diote. Azken urteetan gauza arraro asko egon dira. “Síndrome de despoblamiento de colmenas” esaten dena adibidez, gaitzak ere, liztor asiarra... Urte batean erle dexente, erdiak desagertu ziren nire etxetik. Arraroa izan zen, baina azalpen zientifikorik ez dago oraingoz.

Juanjo, zuk erleei ez diezu inolako tratamendurik ematen?

Juan Joxe: Ez, duela zazpi urte ezti ekologikoa egiten hasi nintzen. Esaten dute lehen erlea txikiagoa zela. Bada, teoria horri jarraituz, koadroetan zelda txikiagoak (hexagonoak) jartzen hasi nintzen, horrela erlea ere txikiagoa izateko. Erle basati eta txikiagoa den horrek bere burua hobeto defenditzen omen du, indartsuagoa da. Barroaren kontra (parasittoa) eta gaitzen aurka hobeto defenditzen da. Aldi berean koadroan erle gehiago jaiotzearekin bertako tenperatura



gradu bat igotzen da eta barroaren tizat zailagoa da bertan sortzea edo bizitzea. Honela ez diot elementu kimikorik bota beharrik. Badirudi polen klase gehiago biltzen dituztela erle hauek baina ez tian ez dut desberdintasun handiegirik ikusten.

Zaila da erlezain izatea?

Joxe Miguel: Astean behin-edo begiratzen ditugu, baina hemendik aurrera maizago joatea beharrezkoa da. Erregina bizirik ote dagoen begiratu, arratoiren bat sartu den, arrautzak

dauden ikusi... Lan hau lasaitasunez egin behar da. Ez da zaila, baina egin egin behar da, eta teknikak ikasi. Baimena ere eskatu behar da udal txean, eta seguru bat egitea komenigarria da.

Juan Joxe: Jantzia beharrezkoa da, material zehatza eta lursaila, noski. Ikastaroa egitea ere komenigarria da, eta gaiari buruz irakurtzea ere. Elkartearen bitartez materiala lortzea erraza da. 8-10 erle izateko 600 euroko inbertsioa egin behar da gutxi gorabehera.

6 urtez	Bizi daiteke erregina
50 kilo	ezti atera daitezke erlauntza bakoitzetik
3.000 arrautza	eguneko jar ditzake erreginak
80.000 erle	bizi daitezke erlauntza bakoitzean.
5.000 lore	bisitatu ditzake egunean erle langile batek
45 egunez	bizi dira erle langileak
7 produktu	desberdin lortzen ditugu erleetatik: polena, propoleoa, erregina-jelea, ezti, argizaria, mostilloa (denen arteko nahasketa) eta azkenaldian erleen pozoia.

Lagunasesoria S.L.
Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es

SAN MIGUEL
gasolindegia

Xabier Garmendia 629 350 099
Arribe-Atallu

German Lasarte
ARBEONDO
HARATEGIA
 Aralar kalea 9
 Lekunberri
 948504157

OKM
ABOKATUAK
 Eukeni Celaya Zubieta · Mikel Iraola Sarasua
 Arretxea, 1º, Ali. Tfnoa: 609 130 555



Zoriondu itzazu zure lagunak edo senitartekoak
Mailope aldikariaren bitartez!

KuxKuxean



Maddi Soroa Navarro
Apirilak. 23
Zure hemezortzigarren urtebetzean mila zorion eta beste mila muxu zure familiaren partez.



Egoitz Oreja
Apirilaren 5ean, sei urte.
Zorionak pottoko, ongi-ongi pasa zure urtebetetze egunean. Muxu haundi-haundi bat Aita, Ama, Eneko, Itxaso eta etxeko guztien partez... Zorionak!!!!



Mailope aldikaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatz iezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren 20a baino lehen.

asegurogintza



aseguru
aholkulariak

**Zure ondarea
eta segurtasuna
babesteko modu
bakarra behar bezela
aseguratua egotea da**

Telefonoa: 943652220. asegurogintza@aseguroak.net
Lizardi Olerkaria 1, 20400 Tolosa

CONSTRUCCIONES GAÑARBE ERAIKUNTZAK S.L.



**Etxebizitzan eraikuntza
eta errehabilitazioa**

948 504 351 - 616 457 540
construccionesganarbe@gmail.com

Oztegin kalea 2, Lekunberri

>> Kalaxka

Tren bat gelditzeko adina argudio izan arren, bederatzi arrazoirekin aski daukagu

Apirilaren 11n, Iruñeko Sarasate Pasealekuan, Nafarroan AHTren lanak berehala gelditzeko giza katea egingo dute.



Argazkia: AHTez

Larraungo Kalaxka taldeak Nafarroan Abiadura Handiko Trenaren lanak berehala gelditzea eskatzen du. Une honetan, lanak hasiak dira eta Castejon eta Arrizabalaga (Campanas) arteko 65 kilometroko zementuzko orbain bat da. Dirudienez, Nafar Gobernuaren lehentasuna 675 milioi euroko luxuzko txu-txu tren da, osasungintzan, hezkuntzan eta gizarte zerbitzuetan baliabide publikoak desagerrarazten dituzten bitartean. Burugogorkeria honen aurrean, biztanleen oinarrizko beharretan arreta jarriko duen eredu sozial berri baten alde egin behar dugu, interes ekonomiko eta finantzario handien gainetik. Hona hemen 9 arrazoi:

1. AHTk gune natural askoren desagerpena eta nekazaritzarako diren makina bat hektareen okupazioa eta suntsipena suposatzen du.

2. Hondorik gabeko putzua da AHT, urtero-urtero bere eraikuntzarako aurrekontuetan ehunka milioi euro sartzen baitituzte.

3. AHTk oinarrizko trenbide zerbitzuen desagerpena dakar.

4. AHT zuzenki kaltetuak diren herrien eta udalen iritzia ginetik inposatu da.

5. Gaurdaino, Nafarroako Gobernuak ez du AHTren errentagarritasunaren inguruko ikerketa sozioekonomiko serio-rik egin.

6. AHT, irregulartasun handiengan eraikitzen ari dira.

7. AHTk lehengo lepotik dauka burua. Oso gogoan daukagu Los Arcoseko Zirkuituak edo Nafarroa Arenak ekarri dizkiguten "onurak", errentagarritasun gabeko lanak dira hauek guztiak eta hipoteka itzela diru-kutxa publikoendako.

8. Une historiko kritiko batean aurkitzen gara. Petrolioia lortzea gero eta garestiago denean, aterabiderik ez duen mundu mailako krisi ekonomikoa iritsi da. Gaurko hazkunde eredu bidera ezina da eta AHT eredu txikitzaile eta itsu honen jarraipen bat baino ez da.

9. AHT bultzatzen duten bitartean errealitateak txirotasuna eta ezberdintasun sozialak handitzen direla erakusten digu.

Beraz, Kalaxkak animatzen zaitu heldu den apirilaren 11n, Iruñeko Sarasate Pasealekuan, AHT Gelditu! Elkarlanak, Ekologistak Martxan-ek eta Sustrai Erakuntza Fundazioak antolatatu duten giza-katean parte hartzera. Nafarroan AHT berehala gelditu beharra dago!
Larraun, 2015-03-16.

BIDEGOXO JATETXEA

Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 576
info@bidegoxo.com

Industrialgunea
Lekunberri 9 - 31870
LEKUNBERRI

Cyclos IREBER

BIZIKLETA DENDA ETA TAILERRA

Iñigo - 637 781 789
cyclosireber@yahoo.es - www.facebook.com/cyclosireber



20 lagun dabilta iaz sortu zen Gazteen Abesbatzan

Joan den hilean Lekunberriko kiroldegian ikuskizun berezia eskaini zuten Aralar Musika Eskolako ikasle eta irakasleek. Gazteen abesbatzak eta haur abesbatzak elkarrekin hainbat abesti eskaini zituzten antzezlan baten barruan. "Ikasbidaia... Nora joan?" izena daraman lan horretan, gaztetxoek ikasgelan antolatu beharreko ikasbidaiari buruz aritu ziren eta bidaia agentzia bateko langileak egindako proposamenei herrialde horretako abesti tradizional batekin erantzuten zieten. Lourdes Navarro izan zen abesbatzekin abestiak lantzeaz arduratu zena.

Bi abesbatzekin egiten duzu lan Lourdes...

Bai bi abesbatza ditugu Musika Eskolan, haur abesbatza eta gazteen abesbatza. Haurren abesbatza B zikloan dauden ikasleekin osatzen dugu. Zortzi urterekin hasten dira nirekin abestiak lantzen eta hiru urtez egoten dira. Behin goi-ziklora pasatzen direnean, badira instrumentalak diren formazio txikiak,

baina ahotsa baino gehiago instrumentua lantzen da.

Orain gutxi sortu duzue gazteen abesbatza...

Bai, iaz hasi ginen. Azkeneko urteotan konturatzen ginen, ikasleak hiru urtez nirekin egon ondoren ez zutela lan horrekin jarraitzeko modurik. Horregatik, iaz gazteen abesbatza sortzeko aukera

Lourdes Navarro arduratzen da bai B zikloko haurrak prestatzeaz eta baita gazteen abesbatza zuzentzeaz ere.

Arg: Mariano Zubiria



eskaini genien ikasleei. Abesbatzan parte hartzera animatuko ote ziren galdetu genien eta 25 ikaslek eman zuten izena. Taldea sendotzeko asmoarekin Noaingo Musika Eskolako Abesbatzarekin harremanetan jarri ginen eta hemen kontzertu bat emateko gonbidatu genien. Guk ere hiru abesti prestatu genituen eurekin batera kantatzeko.

Eta aurten talde horrek berak jarraitu egin du?

Iaz ikasturte erdian jarri genuen martxan eta erantzun ona ikusita aurten ikasturte hasieratik hasi gara entseguetan biltzen. Aurten 20 lagun dabilta guztira. Horietatik sei Leitzakoak dira eta bat Araiztik etortzen da. Iaz Ultzamako bat eta Basaburuko beste bat ere baziren. Leitzakoekin lehendabizi euren herrian aritzen naiz irakasten eta behin abestiak prest ditugunean Lekunberrira etortzen dira gainontzekoekin entsea-tzera.

Eta ze adin bitartekoak dira?

Gazteenak hamabi urte ditu eta zaharrenak hemezortzi egingo ditu aurten. Gehienak neskak dira, bi mutil baino ez daude. Beraz, hemendik deialdia egiten

“Txiki nahiz gazteen abesbatzak bildu nahi izan ditut kontzertu honetan”

diegu abesbatzan parte hartzera gustatuko litzaiekeen guztiei, konpromisorik gabe anima daitezela probatzera.

Ze alde dago abesbatza txikiaren eta gazteen abesbatzaren artean?

Txikiekin beti abesti herrikoiak lantzen ditut, ezagutu ditzaten eta hori delako hurbilen duguna ere. Normalean ahots bakarrarekin aritzen gara, taldearen arabera bigarren bat ere sartzen dut tarteka. Aldiz gazteekin aukerak zabaldu egiten dira izugarri, edozein estiloko abestiak landu ditzakegu, bi eta hiru ahotsetara, koreografiarekin... Ez da abesbatza klasiko bat, estilo guztietara irekia dagoen abesbatza da eta instrumentuekin ere laguntzen ditugu zenbait abesti.

Nolatan prestatu zenuten ikuskizun hori?

Ikuskizun horretan abesbatza guztiak sartu nahi nituen, nahiz eta gazteen abesbatzak pixka bat protagonismo handiagoa eduki. Nire asmoa denak biltzea zen, guztira 92 ikasle. Guztira hamaika abesti eskaini genituen. Jatorri ezberdinetako abesti herrikoiak eskaini genituen, antzezlanaren barruan herrialde batetik bestera salto eginez, Panama, Italia, Ingalaterra, Mexiko, Zeelanda Berria, Japon...

Abesbatzan aritzeak askotan kontzertu bat eskaintzea izaten du helburu...

Bai. Gu oraindik hasi berriak gara, baina beti dago aukera kontzertuak eskaintzeko, beste eskolekin hartu emanean emanaldiak antolatzeko... Beraiek presta badaude, ni ere. Hemendik ekainera bitarte kontzertu tematiko bat prestatzea da gure asmoa. Eta gazteen abesbatza berria denez, herri guztietan ibiliko gara abesten. Eurak gustora dabiltzala uste dut, entseguak proposatzen ditudanean beti oso erantzun ona jasotzen dut eta ni ere pozik.

AUTOZERBITZUA · ARRAINDEGIA
· HARATEGIA ·
PATXI GALARZA
Astelehenetik larunbatera
8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00
Igande eta jaiegunetan
8:00 - 14:00
Irurtzun

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea
Arribe
948 51 31 34

Elosta
Ostatua
Pintxoak, karta,
menuak, ogitartekoak
eta plater konbinatuak
Lekunberri,
Alde zaharra 44
948604717

Azkenak Gaintzakoak

Inauterien herriz herriko jarraipenarekin behar bezala amaitzeko ezin kanpoan utzi Gaintzako inauteriak. Otsailaren 28an ospatu zituzten eta herri gehienetan bezala urteroko egitarauari eutsi zioten, goizean herritarrak puska-biltzan ibili ziren herrian barna mozorroturik eta iluntzean Sonbelu Elkartearen afaldu ondoren goizaldera arte dantzaldia izan zen. Horra hor aurtengo zenbait irudi.



Abesbatzak kontzertua eskainiko du Aste Santuan

Lekunberriko eliz abesbatzak urteroko kontzertua eskainiko du Ostiral Santuan, 20:00etan Lekunberriko elizan. Aurten Theodore Duboisen *Jesukristoren Zazpi Hitzak* Gurutzean obra eskainiko dute.



“Lotara” izena du Xabier Zamargilearen musika lan berriak

Xabier Zamargilea lekunberriarrak maketa berria grabatu berri du. Zamarra eta Aterkia izena du bere proiektuak eta “Lotara” bere lehen lanak. Jorge Abadias kitar-jolearen eta Igor de Castroren bateri-jolearen laguntza izan du lan hau grabatzeko. Hiru abestik eta estudioan zuzenean konposatu eta grabatutako auto-bertsio batek osatzen dute lana.



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es

**TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-
LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA**



Enpresa aholkularitza

-Fiskala	-Lana
-Kontabilitatea	-Abokatuak

666 939 332
aramos@ceconsulting.es
www.ceconsulting.es

La Muga enpresa gunea, 11. Orkoien
Etxaburua, 3. Betelu

Araitz eta Larraun ere euskararen alde!



Martxoaren 19an irten zen aurtengo Korrikaren lekukoa Urepeletik eta joan den hilaren 29an iritsi zen Bilbora. Lorea Agirre izan zen mezuaren egilea eta berak irakurri zituen Bilbon eskuz esku Euskal Herria zeharkatu duen lekukoan gorderik egon diren hitzak. 2.500 kilometro izan dira guztira eta milaka pertsonak parte hartu dute. Gurean Larraundik pasa zen. Irurtzun aldetik Madotzera goizaldeko 3:30ak pasa zirenean sartu zen eta gero Uitziko gainera Leitzara. Gauez, euria erruz eta ordu onenean pasa ez arren, jarraipen handia izan zuen. Etxeko txikiak ere ohetik jaiki ziren korrika egiteko. Astitzen bertso-afaria izan zen, Migel Mari Elozegi, Oskar Estanga, Eneko Lazkoz eta Ander Fuentes aritu ziren bertotan. Eta handik irten ziren asko zuzenean korrika egitera. Edizio honetan Araitztik pasa ez den arren, batzuk Larraunen egin zuten euren lasterkaldia. Hala ere, parte hartzeko aukera izan zuten gaztetxoek Araxes eta Ibarberri ikastetxeetan antolatutako Korrika txikietan. Horra hor aurtengoan bildutako zenbait irudi.



Korrikako argazkiak: Ricardo Bosch. Korrika Txikia: J.A. Garaikoetxea

SAStraka
auto 4x4

Ibilgailuen Mekanika Orokorra
(azterketak, gurpilak, olio aldaketak,...)

Baita Todoterrenoetan Espezializatua ere
(prestakuntzak, homologazioak, erreformak,...)

Industrialdea, 9
31870 Lekunberri

948.60.48.06 Inigo
www.sastraka4x4.com

M. Angeles Urrizalki

iragarkiak,
berriak,
eskelak...

**Diario Vasco eta
Diario de Navarra
Korrespontsala**

948513056
699179437

**aitz
berri**

edertasun
zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890

948 513 083
696 732 290

aitzberri@hotmail.com

27-35 Galarza eta Ramontxo txapeldun

Joan den hilean jokatu zen Satorzulo Lokalak eta Kirol Makomunitateak antolatutako Frontenis Txapelketa Azkarra. Hamabi bikote parte hartu zuten eta guztira hamaika partidu jokatu zituzten. Final laurdenetara lau bikote iritsi ziren: Prados-Goixueta 23 Ramontxo-Galarza 35 eta Aitor-Pana 20 Altzo G – Igartua 35. Azkenean, finala Ramontxo eta Galarzak irabazi zute, 27-35.

Amaitu da gaztetxoek Neguko Pilota Txapelketa

Joan den hilean eman zioten amaiera Larraun Pilota Elkarteak antolatutako Neguko Txapelketari. Finalean kategoria bakoitzeko partidu bana jokatu zituzten pilotari gaztetxoek. Umeen mailan Mikel Azpirotzek eta Iker Arretxeak irabazi zuten finala Mattin Goikoetxea eta Manex Legarraren kontra. Gaztetxoek mailan, Endika Galarza eta Akier Arroki izan ziren garaile Lucas Navarro eta Aimar Goldarazenaren kontra eta gazteen mailan Oihan Igoa eta Aimar Saralegi txapeldun Hodei Ijurko eta Iñaki Galarzaren aurka.

Korrikalari txiki eta handi

Lekunberriko gaztetxoek atletismo taldeko korrikalariak bete-betean dabilta. Dagoeneko maiatzean jokatuko diren Nafarroako Kirol Jokoen kanporaketa frogak egiten hasi dira han eta hemen eta emaitza ezin hobekak jasotzen ari dira. Bestalde, Olatz Glariak joan den hilaren 8an Anoetako Belodromoan jokatu zen Espainiako Beteranoen Txapelketan brontzezko domina irabazi zuen 400 ml-ko proban eta urrezkoa 200 metroko 4 erreleboen proban. Zorionak!

Apirilaren 12ra aldatu dute Lekunberriko Legoaren proba

Arruizko Txikitoren omenezko 27. proba martxoaren 29rako zegoen aurreikusita hasiera batean. Antolakuntzak ordea baimenekin arazoak izan ditu eta apirilaren 12ra aldatu da proba. Aurreko alean azaldu bezala, egunean bertan edo aurrez www.kirolprobak.com atarian eman behar da izena parte hartzeko. Urteroko ibilbidea egin beharko dute korrikalariak, 6 kilometro eta 40 metro. Gogoratu, proba nagusia 12:00etan hasiko dela eta aurretik gaztetxoentzako krosa egonen dela.



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



BACALAO ELKANO S.L.

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com



> Plazaola Partzuergoa



20 URTE BIDEAN

PR-NA 121 3,10 ordu 10,5km



KORNIETAKO PARKE EOLIKOA

Bide interesgarri hau Leizatik Kornietamendira igotzen da. Mendi horrek inguruko ikuspegi polit-politak ditu, eta haize parkea bertan dago. Kornietako iturritik jaitsiz, 5minutu igaro baino lehenago, Agorritzko trikuharrira iritsiko gara. Bide erraz eta polit horretan barna jarraituko dugu, soro berde artean, paisaiaren goiko aldean aerosorgailuak daudela. Mukarrainera ailegatu aurretik, eta pistatik oso hurbil, aurkituko dugu Errolanek, kondairak dienez, habailaz bota omen zituen harrietako bat. Santa Kruzko basilizara jaitsiko gara, bide aldapatsuan, eta gero Leizara itzuliko gara berriz ere.

0,00 ordu / 0,000 km [1] Leizta (465m). Biribilgunetik abiatu behar da, Donezteberako norabidean, eta berehala lehenbiziko kalea hartu behar da, eskuinetara. Lur sail bat inguratuta, ezkerretatik jarraitu, etxe artean, eta aurrerago bidexka bat hartu eskuinetara, gorantz doana.

0,15 ordu / 0,900 km Zirate (520m). Eskuinetara doan bidetik jarraituko dugu.

0,25 ordu / 1,500 km Zementuzko pista. 100 metro aurrera eginen ditugu eta behera doana hartuko dugu. Eskuinetara dagoen lehenbiziko bidetik, gaztainadirantz igoko gara.

0,35 ordu / 2,000 km [2] Auzogazta-eta (610m). Pista hartu eta, haitz batera ailegatutakoan, norabidez aldatuko dugu, ezkerretara.

1,20 ordu / 4,300 km Asketako parrilla (900m). Parrilla gurutzatu eta, ezkerretara, pago artean gora egiten duen bidea hartuko dugu.

1,30 ordu / 4,800 km Iazmeko zelaia (985 m). Alanbre hesiraino jarraitu, eta gora eginen dugu, alanbre hesiaren eskuineko aldetik, puntaraino.

1,40 ordu / 5,200 km [3] Kornietako iturria. Haize parkea. Eskualdeko ikuspegi polit-politak. Kontu izanik, haitz artetik iturriraino jaitsiko gara.

1,45 ordu / 5,400 km Kornietako iturria. Ekialdera, eta alanbre hesiaren beste aldetik 200 metro eginez, trikuharrira iritsiko gara. (Nahi izanez gero).

1,50 ordu / 5,600 km [A] Agorritzko trikuharria. Berriz ere iturrira itzuli eta pistan zehar jarraituko dugu, lehenbizi bazkalekutik, eta gero pistatik.

2,20 ordu / 7,500 km [B] Errolan Harria. Errolanek jaurtikitako harri ospetsuetako beste bat. Pistatik 100 metrotara

dago.

2,30 ordu / 8,210 km [4] Mukarrain (906m).

Pistak eskuin alderako bihurgunea eginen du, igoera txiki baten ondoren. Ezkerretara dagoen bidea hartuko dugu.

2,40 ordu / 8,500 km [4] Pagotxokoa (850 m).

Bidea segituko dugu, beherantz, eta borda bat pasatuta malda piko batetik baselizaraino iritsiko gara.

2,50 ordu / 9,300 km [5] Santa Kruzko basiliza (678 m).

Pago arteko balkoi polit batean dago.

2,55 ordu / 9,500 km Ezkerretara hartuko dugu, bordaren ondortik pasatuta.

3,10 ordu / 10,500 km Leizta. Herrira iritsiko gara, eta eliza eta hilerriaren ondortik pasatuko gara.



“Arrautza txikiak saltzea kosta egiten da, onenak izan arren”

Orain urtebete hasi zen Mikel Lasarte oiloak ekologikoan hazten eta arrautzak saltzen. Etxarrin bertan, Arbegain-en, momentu honetan ia 300 oilo ditu eta pixkanaka kopurua igotzen joateko asmoa du.



Pentsu ekologikoa eta baratza ekologikoan landatutako aza jaten dute.

Nolatan animatu zinen arrautza ekologikoak ekoizten eta saltzen hastera?

Idea honekin denbora asko neraman, betidanik gustatu izan zaizkit halako kontuak. Etxean txikitatik hegazti asko izan ditugu. Nekazaritzaren eta abeltzaintzaren arloan egin izan dut lan, baina beti besteentzako lan egiteaz nekatua nengoen eta iazko martxoan, orain urtebete ekarri nituen lehenengo oiloak.

Oilo ekologikoen granjak gertutik eza-gutzen dituzu gainera...

Bai. Nik Nekazal Ingenieritza Teknikoa ikasi nuen eta Azpeitian bizitzen nengoela, Mikel Igoaren teknika izan nintzen, bera izan zen Euskal Autonomia

Erkidegoan arrautza ekologikoekin hasi zen lehena. Gero, orain bederatzita bat urte, Nafarroan lehena izan zen Mikel Altzuarti ere lagundu nion... Nik neuk jartzeko asmoa aspalditik neukan, lur gehiegirik behar ez duen aktibitatea da, instalazio handirik ere behar ez duena eta ogibide egokia izan zitekeela pentsatzen nuen. Gero bueltan Mikel Altzuarterengana joan behar izan nuen ikastera... Kar, kar, kar...

Ze arrazako oiloak dira hauek?

Hibridoak erabiltzen dira, baten batzuk saiatu izan dira euskal oiloekin, baina erruten duten arrautza ez da oso handia izaten eta gainera kantitate aldetik ere juxtu xamar ibiltzen dira.

Nondik ekartzen dituzu?

Nafarroako Avicola Esquirozetik eta Aragoako Grapisatik ekartzen ditut. Honera 16 aste dituztenean iristen dira.

Nola hazten dira oilo ekologikoak?

Oiloak lurrian hazten dira eta oilo bakoitzeko lau metro karratu behar dira gutxienez. Gero txabola bat ere izan behar duzu janaria eta ura eman eta arrautzak jartzeko. Hor metro karratu bakoitzeko asko jota sei oilo izan ditzakezu. Dena zehazki arautua dago, janlekuek tamaina, edateko sistema eta kopuruak...

Zer ematen diezu jaten?

Pentsu ekologia. Hemen pentsu frantsesa da gehien erabiltzen dena, oso konpletoa eta ona delako. Hala ere Bizkaitik eta Gipuzkoatik ere ekartzen dugu pentsua. Nahita nahiez pentsuak ekologikoa behar du izan ekoizpen industrialarekin alderatuta hori da ezberdintasunetako bat, elikagai transgenetikorik eta koloranterik ez dela sartzen pentsuan. Jendeak beti izan du buruan arrautzaren gorringoak gorria behar duela izan eta gorringo gorria koloranteekin lortzen da.

Eta zergatik dago uste hori?

Bere garaian hemen arto gorri txiki bat erabiltzen zen eta horrek karoteno asko zeukanez arrautza asko gorritzen zuen, horregatik hemengo jendea gorringo gorria jatera zegoen ohituta. Gero industrialak hasi zirenean zuritu egin zen ikaragarri eta jendeak etxekoa eta ona zen gorringo gorriarekin erlazioztatzen zuen. Egun garai bateko arto hura jada ez dago nahi adina eta bestelako arto ekologikoak badiren arren ez dira gorringoak. Hala ere badira gorritasun hori lortzeko bestelako moduak, adibidez oiolei pimentoia edo erremolatxa ema-

nez. Nire oiloek pentsua jaten dute nagusiki eta gero lurrean harrapatzen dutenaz gainera aza ematen diet. Aza etxean landatzen dugu, baratza ekologikoan.

Ordun prozesua zein da honera 16 asterekin iritsi eta gero?

Hemen loteka egoten dira banatuta. Loteak nahastuz gero arazoak egon daitezke, oiloak oso gaiztoak izaten dira eta odola ikusi edo dastatzen badute erotu egiten dira eta bestea akatzera joaten dira. Honera iritsi eta bi edo lau astera hasten dira erruten. Lehendabiziko arrautzak txiki xamarrek izaten dira, bi hilabete pasatxorekin lortzen dute maila gorenean egotea. Baina arrautza txiki horiek ere saldu egin behar, baina kostatzen da, berez onenak izan arren jendeak ez ditu nahi izaten tamaina txikikoak.

Zenbat lote dituzu?

150 oiloko bi lote, zaharrenak urtebete du eta bigarrena duela hilabete bat ekarri nuen. Berez, derrigortu egiten dizute Nekazaritza Lan Unitate gutxieneko bat izatera, baina hori lortzeko hiru urte ditut eta nire asmoa pixkanaka kopurua igotzen joatea da. Nire kalkuluen arabera, 600 oilo gutxienez beharko ditut soldata duin bat ateratzeko eta nire asmoa hemendik bi urtera 600 horietara iritea da eta gerora 300 oiloko hiru lote izatea bi lote beti martxan izateko.

Horretarako zure merkatua ere zabaltzea lortu beharko duzu...

Hori da, gainera oraingoz behintzat nire asmoa da partikularrei zuzenean saltzea, ez ditut dendetara eramaten. Bezero batzuk honera etortzen dira



erostera eta beste batzuei nik neuk eramaten diet.

Eta bezero horiek lortzeko nola ireki duzu bidea?

Momentuz ahoz ahokoarekin bakarrik. Larraunen badituz bezeroak, baina gehienak Iruñean. Koadrilakoen artean eta dantza taldeko kideen artean hasi nintzen saltzen.

Egunerokoan holako granja batek ze lan dituzte?

Egunerokoan beti bermatu behar duzu ura eta pentsu aski dutela. Bestalde, argia kontrolatzea ere oso garrantzitsua da. Fotoperiodoaren arabera erruten dutenez, neguan erruteari uzten diote edo askoz ere gutxiago erruten dute, argirik ez dagoelako, horregatik tenporizadore batekin 10 orduz iluntasuna dutela eta gainontzeko orduetan argia izan dezatela bermatzen dugu.

Eta platerean zertan nabaritzen da arrautza ekologikoa dela?

Kolorea oso nabaria izaten da, koloretan ez duenez hori-laranja distiratsukoa izaten da. Gainera, zenbat eta barazki gehiago eman orduan eta argiagotzen dute arrautza eta garagar hutsa emanez gero kasik zuria ateratzen da. Ehundura ere lodiagoa izaten da eta gustuan nabaritu egiten da. Behin probatuta kostatzen da industriako arrautzetara bueltatzea.

Inor interesaturik egonez gero nola erosi ditzake?

Etxarrira bertara etorri, etxean bertan saltzen ditugu edo bestela niri hots egin eta ni neu arduratzen naiz eramateaz. Harremanetarako: 630 069 756.

NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA

URZUBI S.A.

Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20

Lekunberri
urzubi@hotmail.com

NEKAZARI, S.L.
Kubota
STIHL
ANTONIO CARRARO

Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazaris@hotmail.com

AMAIURU BAR
GITXIKO PIZZAK,
KOPA BERGIZIAK
948504352

Kantina Rock
948 60 48 21
KANTINA
bokatak, platerak eta...musika.....

Lagundu Mailope!

Mailopeko bazkidea izan nahi duzu?
mailope@labrit.net

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
HIRUROK S. VETERINARIOS
Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri

“Unibertsitatean dena italieraz egiteak asko laguntzen du hizkuntza menperatzen”

Aurkene Goldarazena lekunberriarra Italian dabil Soziologia ikasten, bost hilabetetarako joan da Milanera.

Noiztik zaude Milanen eta zertan zabilta?

Otsailaren 1ean etorri nintzen Milanera, bost hilabeterako hemengo unibertsitatean (Università degli Studi di Milano) ikastera. Soziologiako gradua egiten ari naiz Nafarroako Unibertsitate Publikoan, eta Erasmus programarekin etortzeko aukera eskaini zidaten.

Zergatik aukeratu zenuen hiri hori? Edo bertara joateko aukera nolatan sortu zitzaizun?

Gure ikasketetarako hainbat toki eskaintzen dituzte Erasmusa egiteko: Portugal, Italia, Polonia, Mexiko... Italian hiru hiri genituen aukeratzeko: Milan, Calabria eta Pisa, baina hiruek ongi aztertu ondoren Milanekin gelditu nintzen inguruko hiri eta herriak oso turistikoak zirelako. Egia esan, inoiz ez naiz izan oso ausarta gauza hauetarako, baina oso aukera ona zela iruditu zitzaidan, batez ere esperientziagatik eta baita gero lana bilatzeko ere. Gela bereko lau pertsona etorri gara, eta hasiera batean behintzat bakarrik ez etortzeak asko laguntzen du.

Zein da zure egunerokoa bertan?

Erresidentzia batean nago bizitzen. Asteazken zehar goizetan klaseak ditut eta egun batzuetan arratsaldean italiarako kurso bat egiten nabil. Asteburuetan eta denbora librean dugun bakoitzean Milango txokoak eta inguruko hiriak bisitatzera joaten gara. Ni ez nahiz oso festazalea baino hemen egunero ateratzen da jendea diskoteketara, baita asteazken zehar ere.

Nolakoa da bertako gizartea?

Askok diote hemengo jendea oso hurbila dela, baina nire sententzia justu kontraria da, oso serioak eta hotzak dira. Hala ere, iparraldeko jendea hegoaldekoa baino askoz ere irekiagoa da. Milango eta inguruko hirietako jendearen artean ezberdintasun sozial handiak daude, eta hori oso agerian dago kaleetan zehar.

Zer da gehien harritu zaituena?

“Happy Hour”-en kontua da asko harritu nauen gauzetako bat. Taberna askotan, 8 edo 10 euro ordaintzen dituzu edari batengatik (edozein edari: garagardo bat, ura, koktelak...) eta prezio berdinarekin truke denetarik jateko aukera duzu, buffet librean. Arratsaldeko seietatik hamarrak arte daude erabat ja-



naria ateratzen ibiltzen dira eta nahi adina jan dezakezu. Ia astero joaten gara afaltzera eta denetarik ateratzen dute: pasta, pizzak, haragiak, arroza, postre goxoak...

Eta hizkuntzarekin?

Hizkuntza da gauzarik konplikatuena, ez nekielako hitzik ere italieraz. Pixkanaka pixkanaka hasten zara ulertzen, baina uste dut hizkuntza ongi ikastea oso zaila dela, nahiz eta erdararen antza handia izan, jendeak uste duena baino zailagoa da. Hemengo unibertsitatean dena italieraz egiten da, bai klaseak eta baita azterketak ere, eta horrek azken batean behartu egiten zaitu hizkuntza gutxi gorabehera kontrolatzea.

Bertara joateko asmoa duen bati zer gomendatuko zenioke?

Oraindik denbora gutxi daramat, baina argi izan dezala hona etorri nahi duenak, hasieran oso zaila egiten baita hain urrutiko egotea eta hizkuntza ez menperatzea. Hona etorri aurretik italiara pixka bat ikasteko aukera badu errazago egingo zaio. Bestalde, askok pentsatzen dute Erasmus bidaian ez dela deus ikasi behar izaten, baina hemen ez dizute ezer oparitzen.

Etxekoei, lagunei edo hemen dagoen inori mezuren bat bidali nahi badiozu, aprobetxatu!

Lagunei, mutilari eta familia guztiari, asko oroitzen naizela zuetaz, okerrera pasa dela eta belaxe nagoela bueltan! Muxu handi bat guztioi!

apirila

3 Lekunberri: *Eliz abesbatzaren Aste Santuko kontzertua Lekunberriko elizan, arratsaldeko 20:00etan.*

5 Lekunberri: *Gazte Martxa Lekunberrietik Berriozarrera.*

12 Lekunberri: *Arruizko Txikitoreren omenezko Legoa. Irteera 12:00etan Lekunberriko Pilarika ermita paretik. Gaztetxoaren krosa proba nagusiaren aurretik eginen da.*

17 Larraun: *Nafarroan Abiadura Handiko Trenari buruzko hitzaldia, Larraungo Udaletxean, 19:00etan.*

17 Larraun: *Larraungo Eguna antolatzeko billera, arratsaldeko 15:30etan, Mitxausean.*

18 Azkarate: *Julio Soto eta Sebastian Lizasorekin bertso afaria elkartean.*

25 Iruñea: *Kontseiluaren ekitaldia Iruñeko Anaitasunan arratsaldeko 18:00etan.*

26 Larraun:
-Goizez ekintza ezberdinak herrietan.
-17:00 oihalak apaindu eta josi Lekunberriko Trinketean.
-18:30 Mahai ingurua Lekunberriko udaletxeko batzar aretoan.

agenda

merkatu txikia

SALGAI

- Astitzen **bi ohe** (1,35 metro), Lo Monaco koltxoiekin batera. Baita, **gaztainon-doko armario** eder bat. Prezio onean. Interesatuak deitu telefono hauetara: 687 841 313 - 948 33 92 67 (Patxi).

- **Banabarra** salgai Leitzaan, oso fina eta eguterakoa. 660 421 746 (Ekaitz).

-Azken urteko **siloko belarbolak** salgai Etxarri-Larraunen. 676221689, Joxe.

LAN BILA

- Lekunberri emakume bat prest **edozein lanetan aritzeko**: etxeko lanak, pertsonak zaindu, etxebizitzaren garbiketarako eta abar. Emilia Dimitrova, 948 604 893 / 679 053 368.

ALOKAIRU BILA

- Araitz eta Leitzaan bailaran alokatzeko **borda, etxe edo baserri** bila dabilen bikotea. Amaia (661 658 767)

Atikoa alokatzen da Betelun, 198 m², 450 euro hilean. 678 304 808 (Maribel).



APIRILAK 26 ABRIL

LARRAUNGO EHUNTZE EGUNA

-Goizez ekintza ezberdinak herrietan

-17:00etan oihalak apaindu eta josi Lekunberriko trinketean

-18:30etan mahai ingurua Lekunberriko udaletxeko batzar aretoan

erabakia #ehuntzen
hora de tejer voluntades
notre avenir, notre decision · time for democracy

ALIPROX
Lekunberri
janaridenda
hamabostaldiro eskaintza bereziak

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA
696 658 288
LEKUNBERRI

TAXILON
Lontxo Otamendi Artola
661 202 249
(9 plaza)
E-posta: lotamendi5@gmail.com
Atallu - Araitz



19. korrika
EUSKAHALDUN!
Urepeletik Bilbaino • 2015eko martxoaren 19tik 29ra

esk
ESKERRIK ASKO
KORRIKAN
parte hartu
duzuen guztioi!

